

MIKROIPUIN LEHIAKETA

Gaia: Geoparkea, ni eta beste animalia batzuk.

- Narrazioak Euskal Kostaldeko Geoparkearen X (Twitter) kontuan argitaratuko dira eta, gehienez, 250 karaktere izan beharko dituzte.
- 16 urtetik gorako edonork parte hartu ahal izango du lehiaketan, eta parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ahal izango ditu.
- Lanak euskaraz idatziak, originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dira.
- Lanak 2024ko Europako Geoparkeen Asteak dirauen bitartean aurkeztu beharko dira, hau da, maiatzaren 18tik 26ra (biak barne), labur.eus/mikroipuina loturan. Inprimakia betetzerakoan egilearen datu guztiak bete beharko dira.
- Bi sari banatuko dira: lan onenak Geoparkeko bisita gidatua bi laguntzat, Geoparkea. *Biodibertsitateari buruzko apunteak* liburua eta bertako produktuen 'Geogourmet' otarra jasoko ditu; bestalde, parte-hartzaile guztien artean bi laguntzat bisita gidatua eta Geoparkea. *Biodibertsitateari buruzko apunteak* liburuaren ale batez osatutako saria zozkatuko da.
- Aurkeztutako lanek maila egokirik ez balute, sariak eman gabe gera litezke.
- Egilearen jabetzapean geratuko dira lehiaketara aurkezten dituen lanak, Euskal Kostaldeko Geoparkeak beretzat gordetzen du saritutako lanak argitaratzeko eta erreproduzitzeko eskubidea, egileen izenak aipatuta beti ere.
- Epaimahaia, Geogarapeneko (Euskal Kostaldeko Geoparkearen kudeaketarako Elkartea) taldekideek osatuko dute. Epaimahaiaren erabakia maiatzaren 27an jakinaraziko da Geoparkeko sare sozialen bidez. Aldi berean, modu pertsonalean jakinaraziko zaie irabazleei.
- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauetan jasotako guztia onartzea dakar.

Galderak eta zalantzak argitzeko idatzi komunikazioa@geoparkea.com helbidera.

Eskerrik asko parte hartzeagatik eta zorte on!